

395

*Haraguiaren beccatuetic beguirateco caspi gar-
ren erremediua, borz censuet, eta lehenbi
cicoric, beguiez conzu eduquitcea.*

CAP. XLI.

NOre ere nahi baitu, bere buruaz *Visus*.
contu onic eman, behar ditu borz
censuac, cein baitira, iccuste, das-
tatcea, ençutea, vsnatcea eta vquit-
cea guardiatu eta beguiratu. Ceren hauc dira
leihoac eta portaleac ceinetaric beccatu guz-
tiac, eta guztiz ere haraguiarenac, ariman bar-
rena sartcen baitira. Athe hauc behar ditugu
hertsis; eta hautçaz eduqui contu, baldin etsaia
gueure arimaco gazteluan sartcetuc nahi ba-
dugu beguiratu.

Lehenbico athea eta portalea principala,
da beguieraco vista. *Visus*. Hunec bertce cen-
su guztiey eramaiten derave abantail. Hunec
dembora gutiz eguiten du anbitz. Vrnititic
iccusten du, eta iccusten duena, gogoan barre-
na sartcendu, eta gogoac ere errecibitcen du.
Baldin beguari, eduquitcen ezpaçaica be-
guia, calte handiac guertharuco dira.

Euac iccussi çuen sagarra, eta handie bere

393 HARAGVIAREN BECCATVTIC

burua gurequin batean, penatan ibeni çuen. Davitec behatu cioen behar eicen emazteari, eta handic eguitemo handitan erori cen.

Comunzqui amorioa beguie taric farcenda handic hasten eta sórcenda. Ihiztari handiac dira beguiac, eta bere gogaraco ihicric eraiquitcen dutenean, ez tira erdie tz arte mo, baratcen.

Beguie taceo vista batec, behingo beharceac, eta are anhitzetan ere, iragait çaz eta vste cablean beharceac arrotar cen du bihorza; cer eginendu bada behin eta berriz, berariaz eta luçaro beha egoite harc? Bi garr en beharce harc; berriz bihurtce. harc, gogoeta eguiten duela, eta cer hari den daquiela, beguiac fincaturic, eta sandaturic, emaztearen beguiey, beguitarteari, gorputzari, edertafunari eta ibilguneari beha egoite harc, sua pitzten du, aiticinatcen du, eta azquenean errateen du. Hargatic erraitendu Spiritu sainduac. *Ne respicias mulierem multuolam, ne forte incidat in laqueos illius.* Eznaçoçula beha, emazte arin airatu leihariari: behin iccusiz guero, *ne respicias, ez bir-iccus, ez berriz bihur.* Ceren bihurtcen baçara, haren faretan erortceco periletan larrico, çara. Ahalque gabequi, multuqui, cantoin guztietara beguiac darabiltçala, dabilan emaztea, peril da eroria den, edo fari erorico den. *Ne dicatis vos habere animos pudicos, si habeatis oculos impudicos, quia impudicus oculus,*

BEGVIRACTCECO ERREMEDIOAC. 393

oculus, animi impudici est nuntius. Ez terra-
çuela (dio san Agustinec) bihotz garbiac
eta onheftac dirutçuela, baldin begui defon-
heftac eta ahalque gabeac bədirutçue. Ce-
ren begui defonhefta, ahalque gabea eta
campoan fosegurié eztuena, barren gaixtoa-
ren, fosegu gabearen eta defonheftaren man-
dataria da eta seinala. Emaztətaric begui-
ratu nahi duenac, beguiratu behardu hala-
ber emaztey behartecic, behintçat bai, aihər-
cunde gaixtoz, eta handic quilicatcen dela,
sentitcen duclaric beha egoitetic.

f. 1.

GAuça ederra da, eta arimacotçat probet-
təhu handitacoa, onheftasun bateran be-
guen beheititurié eduquitcea. Contatcen-
da Hugo Ipizpicu saindu hartçaz, hain ce-
ducala contu handia bere beguien eguin bi-
deaz, non emazte batequin minçatcen ce-
nean, bethiere burua ahal beçanbat, bertce
alderat itçulitcen baitçuen. Eta erraiten
çuen ongui cela hala eguitca, ceren bert-
cela gaitz cela bere gogaraco gauça ic-
cuffiz guero, haren ez desfratca, e-
do hartçaz gogoetarié eguin gabe, egoi-
tea.

Guidus
Carruf. in
vita Hugo-
nis.

Cyroren soldaduec, hartu cituztenean Affi-

Cc

394 HARAGVIAREN BECCATVTIC

Rhodig
lib. 13. c. 8.

rioen iendeac eta onac; edirençuten bertce presoen artean Pantea ederra, Erregue Abradaten emaztea. Eta emancioren bere hala aditcera Erregue Cyrori, emazteharen edertafurta, nolacoa eta cein abantailatus cen. Baiña ceren Erreguec ez aditu iduri eguiten baitçuen, lehiatu ceican bere adisquide mamietaric bat, trébén ceicana, Arraspas ceritçan bat, erraitera. Erregue ezta egun daino lurraraten gainean hain emazte edertic forthu, mercedu hain bertce ohore emandiaçoçun, mercedu behin iccus deçaçun : eta prometacen derarçut ecen baldin behin iccusten baduçu, eztuçula bi garrenean gonuidatcailleric beharco, ceteri egonen çarela errana.

Orduan ihardetsi cioen Erreguec, hala erraile hari. Bada ariaçcin horren beronen garic, ez tut iccussi nahi. Ceren baldin behin librequi iccusten badut, veldur naiz bi garreheco gathiba nadin, eta neure desira deso denatuac behar eztena eraguin diaçadan. Errepuesta eder haur eman çuen Erregue ientil harc. Ceren baitciaquien, cenbat calte eguiten çuen, gauça debecuaeren iccuffeac.

Hala iracurtcen dugu Alexandro handiac ere victoria famatu hura Erregue Darioen gainean içan çuenean, eta haren alaba ederrac, bertce presoen artean hartuci-

BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 395

cutzutenan, etçuela, nahi içatu, eccarciaçoten heratic bat ere, bere aittinera, veldurrez iccussi eta guero, behar eccena cragun ciaçoten.

Edireitenda bertteric ere anhitz honelaco exemploric, ceinçetatic athera behar baitugu, baldin nahi ezpadugu, behar ezten amorioa gogoan eta bihotzean barrena sar daquigun cenbait aldiz beguiac beheçititu eta herthi behar ditugula: beguietaco viftaren portale hunez, cen baita lehenbicico censusa, contu eduqui behar dugula. Ceren haurda erremedio ona haraguiaren beccatutic beguiratceco, hartu behar dena.

Gustus.

Haraguiaren beccatutic beguiratceco çortçegarren erremedioa, mibiaz, contu eduquitça.

CAP. XLII.

BAldia viftaren portaleari eduqui behar baçaica beguia eta eguin guardia. Agurda etçaicala guti ago eguin behar gustuarenari. Hain ongui eduqui behar da contu baraz nola bertceaz. Eta gustuaz mintço naicenean, mintço naiz, ahoari vquitcen çait-

396 BARAGVIAREN BECCATVTIC

çan gauça guztiez: hala mihiaz eta minçatceaz, nola ianaz eta edanaz.

Lehenbicoric behar da, vanoqui, erguelqui, arintqui eta defonhesqui minçatcotic beguiratu. Ceren Iondone Pauloc dioen beçala. *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala.* Solhas gaixtoec galtcen dituzte aztura onac. Eta erraiten dute Philosophoec ere. *Voces sunt signa conceptuum.* Mihiac declaratendu, cer daducan bat bederac, bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintço baita campoan, hala ohi da barranean. Cer baitaduça gogoan, hura aippa nahidu iendartean mihia da bihotzaren mandataria mihian da eçagun, nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. Iondone Petri eçagutu cen beçala.

Escufatu behar dira eta guibelatu hitz alferrac, arinac, iocolariac, doftailluac, eta guztien gainetic defonhestac, vanoac eta erguelac. Ceren hec iratçartcen dute lo datçana, eraiquitcen dute, ihicia eta eraguiten behar ezçena. Hec dira su pitz garriac, eta elccarrequin trebarceco bideac. Halaco hitzetatic behar duçu escufatu ceure mihia, baldin nahi baduçu beguiratu emaztëtaric, ceure burua.

BEGVIRATCECO ERREMEDIOAC. 397

§. I.

HAlaber beguiratu behar duğu emaztè-quin sobera solhastat cetic, conuerfatcetic eta hitztun içaisetie. Ceren hequen conuer facioneac eta solhasac bere quin du ezta, berequin du balacua, linburtceco occofinoa, eta bai elccarri lorceco, colà, visca eta lequeda ere.

Emazten artean dabillanac, hequin solhastatceaz atsequin harcen duenac, eta guztia-requin ere ezteia erortcearen veldur erraiten duenac, sinherz araci nahidu, ezteia haraguiz eguina, ezteia guiçona: edo sua golcoan: gorderic, arropcy lothu gabe erabil deçaqueyela: edo iccatz bicien gaincan orthufic, oin-çolac erre gabe, ibil dite queyela. Ordea erraitendu Spiritu sainduac, ezteia possible hala eguitea. *Nunquid potest homo abscondere ignem in sinu suo, ut vestimenta illius non ardeant? Aut ambulare super prunas ut non comburantur planta eius? Sic qui ingreditur ad mulierem.* Emaztèquin ibiltcea, eta calteric ez errecibiteca, suan erre gabe egoitea beçala da. Nor nahi den, eta nolacoa nahiden çarela: çaren handi edo etipi: çaren debocinoz eta intencione oncz behea: sinean çaren ceure vstex harría baino gogor

Vide Basi
de constu
monast.
cap. 4.

Prou. 6.

398 HARAGVIAREN BECCATVTIC

ago, eta vrrea baiño fin ago, baina emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciatuaz, eztiar eta emeaz, beretacotuco, çairu, centçutic atheraco, liluratuco era bertce aldera itçulico çaitu. Çabiltça errota hartara; irina loihuco çaitçu: hurbil çaquitça, curfatuco çaitu. Halatan erraiten du londone Pauloc. *Fugite fornicationem.* These eguiçue emaztétaric, haraguiaren beccatutic, ibençue çuen eta occasinoaren artean murru bat, ez elccargana hurbil. Eztu erraiten londone Pauloc, bertçe beccatuez beçala, emaztétaco beccatuari deffenda gaquitçala: eztu erraiten harmétan moccoz mocco iargaquitçala, baina dio, *fugite*, ihes daguigula. Erran bailleça beçala. Bertce beccatu guztiey behar gatçaizte, Iaincoaren faborearequin batean, contratu eta deffendatu, baina haraguiarenari, ihes eguin: halatan behar dugu garaitu eta victoria erdietsi. Ceren bertcela, hurbilduz guero, elccarganaz guero, solhalean baccaric iarriz guero, gaitz da curfatu gabe guelditcea, sarcen sarhu gabe itçurtcea.

Vide Aug
de honesta-
te. iulie.
cap. 1.

Eta çuhurtcia, içurria den leccura, erre-
medioetan fidaturic, ioaita. Alde eguiçu,
ihes eguiçu, hura da ez içurrizatceco erre-
medioric hoberena eta segurena. Bada
emaztétaco beccatua içurriaren pare da, cur-
fuz doha, asco du vquitcea, asco du hurbilt-
cea. Hai deçagun beraz londone Pauloren

BEGUIRATCECO ERREMEDIAC. 399

concellua, dagungun ihez, ezcaitecilla occasi-
notan sar eta ez iar.

L hen agoco Emperadore gaixto hequen
demboran, hetaric ihes eguiten çuenac galt-
cea çuen martirioaren palma eta Coroa. Co-
roa hura erdietfico çuenac, martir içanen ce-
nac, etçuen ihesic eguin behar. Baina diffe-
rent da, castitarcaren ez galtcea gatic, ihes
eguitean: ihes eguite hura, occasinotan çare-
nean, ceure buruaren beguiratce eta bortchat-
ce hura, da martirio eta martir içaitea. Hala
erraiten du san Agustinec. *Nemo dicat fra-* Aug term.
tres mei charissimi, quoa temporibus nostris, mar- 240. de
tyrum certamina esse non possunt, habet enim temp.
pax nostra martyres suos, nam libidinem fugere
pars magna martyrij est. Ezterrata nehorc,
ecen orai gure dembora hunetan ecin date-
queyela martiric, badira bai orai ere martirac.
Ceren haraguiaren appetiru desordenatuen
vençutcea, emaztétaric ihes eguitea, eta bere
buruaren hetaric beguiratcea, valentia handia
da eta martir içaitea.

§. 3.

Odea cergatic erraiten da, bertce beccatusc
desfédatur eta contra carrea iarriz, behar diru-
gula garaitu, baiña haraguiarena ihes eguinez?

C c 4

400 HARAGVIAREN BECCATVTIC

Lehenbico arracoifia. Ceren guifona eta emaztea, fua eta iftupa beçala, baitira: be-raz ezta elcarrequico on, hurbiltcen badi-
ra, ezta segurancaric, apart egoitea da hobere-
nic. Bi garten arraçoina. Ceren ez-
paita on, hurbiltceaz. indar hartcen duen et-
faiari alderatcea. Hala da bada haraguia eta
haraguiaren beccatua. Ceren gure haraguia
lehen gueldi eta folegu onean cegoena, bere-
ce harraguia gana hurbiltceaz, pitzenda, er-
natuenda, indartean fartcenda, etfai bihurt-
cenda. Eta nola Erregue batec herabe bail-
luque, bere etfaien contra guduan eta com-
batean fartcera, liaquienean, bere soldadu
propioac, bere traidore dituela, bere contra
iaiquico çaçala: hala behar dugu guc ere
içan herabe, haraguiarequin iharduquit cerea
eta guerlan fartcera. Ceren gure haraguia,
traidore bat beçala gure contra iaiquitcen
baita.

Arraçoin haur emaiten du aditcera eta bai
declaratcen ere fan Thomasec, erraiten due-
nean. *Peccatum semper est fugiendum, sed impu-
gnatio peccati, quandoque est vincenda fugiendo,
quandoque vero resistendo. Fugiendo, quando con-
tinuata cogitatio perseverans auget incensuum
peccati, sicut accidit in luxuria. Resistendo au-
tem, quando cogitatio perseverans tollit
incensuum peccati, sicut accidit in omnibus pecca-
tis, præter luxuriam.* Beccatutic behti beharda

BEVIRATCECO ERREMEDIOAC. 401

ihesequin, baiña beccatuaren accometamenduz, narritamendua, eta tentamendua, barean behar da ihes eguinez, eta apartatuz garaitu, eta bertean deffendatuz, contra eguinez, eta borrocatuz. Baldin deffendatce hartçaz, eta hartan pensatceaz, guritcen bada beccatuaren tentamendua, nola eguiten baita, haraguiaren beccatuaz, bertce beccatu guztietan, orduan hobe da deffenfan iattea, eta tentamenduaren contra borrocatcea. Baiña baldin deffendatce hartçaz, eta hartan pensatceaz pitzren ago bada sua, eta handitcen ago tentamendua, nola eguiten baita haraguiaren beccatuan, orduan behar da ihes eguin, eta ez nola deffendatuco den, gogoetan iarri, ceren gogoeta hura bera da, su pitz garri.

Eta ihes eguitea da, hartaco occasinçetarric, solhaferaric, incontruetaric, eta gogoetarric beguiratcea. Ceren dirua ezra segur ohoiñac diren leccuan; ez ardia otsoen artean; eta ez istupa suaren aldean. Gauça perilosac dira hauc elcartequico, eta bai guiçona, eta emaztea ere, berac baccarric, bi bian egoiteco.

402 HARAGVIAREN BECCATYTIC

f. 3.

BAina oraiño bi bian egoitez, halaco per-
 rilic ezpaliz ere, bada bertze arraçoin
 bar, emaztétatic apartatceco, hequen artean
 ez maiz ibiltceco, eta solhasean ez sobera
 egoiteco, cein baita exemplo onaren emait-
 ceo, eta escanda luaren escusatceco dugun o-
 bligacinoa. Ezta alco ceure conciétcian bar-
 rena casto, garbi, eta onhest içartea, baiña
 campoan ere, eta munduaren alderacotçat
 ere, hala behar duçu içan. *Prorsdens bonæ,*
non tantum coram Deo, sed etiam coram omnibus
hominibus. Bere arauaz, Iaincoaz beçala, mun-
 duaz ere, barrenecoaz beçala, campocoaz ere
 eguin behar da contu. Ongui heldu da pöntu
 hunetara, emazte prestuaz Spiritu sainduac
 dioena. *Quæsiuit lanam & linum & operata est*
consilio manuum suarum. Bilhatu cituen illea,
 eta lihoa g eta biac bere escuz landu, eta o-
 bratu cituen; illea campoco, eta lihoa barre-
 neco. Legue çaharreco arca famatu hura,
 vtre finez campotic, eta barrenetic vrrazta-
 tua cen. *Draurabis eam auro uundissimo in-*
tus & foris. Ceruco esposoac biatan deitcen-
 du ederra bere esposa. *Quam pulchra es ami-*
ca mea, quam pulchra. Aditcera emaita ga-
 tic, guiritiño on içanen denac, campoan,
 eta barrenean, bietan behar duela içan on,

BEGVIRATCECO ERREMEDTOAC. 403

era eder : biez behar duela eduqui contu, eta ardua.

Guiçon bat, maiz baccatric, eta premia gabe emazte batequin egoiteac, emaitendu occasino beccatu eraguiteco, eta gogan behar aracitceco, badela hequen artean, behar ezten cenbait eçagutça, eta amorio desordenatu.

Nahi eztuenac erraiçunic, eztemela occasinoric. Nahi eztuenac, dei deçaten otso, ezteçala iauntz otso-larruric. Nahi eztuenac ilkhi dadin kheric, eztaguiela suric. Legue çucenean ordenatua dago, asco dela frogantçaric, emazte baten gaixotçat emaiteco, guiçonarequin baccaric, ez-orenean, eta hartaco leccuan edtreitea.

Ceren aieru, hec, itçal gaizca, ibiltce hec, baitira frogantçaric asco, gogan behar, aracitceco. Beraz hunelatan ezta asco intencione ona içaita, baiña behar da, beccatu eraguitceco escandalua, eta occasinoa ere escusatu, eta khendu.

Naturaleçaten aldetic denaz beçan batean, eztaude behin ere, elccarrequin segur, guiçona, eta emaztea. Asco da guiçon, eta emazte içaita, periletan içaiteco, eta egoiteco. Eta tentatçaillea ere eztaçta behin ere lo : hanc eraiquitcen du erbia, pitz-tendu sua, gogoratcen du beccatua, iratçatcen du haragua : eta behin iratçariz

Vide Chry.
serm con-
tra concu-
bi. Tom. 5.

404 HARAGVIAREN BECCATVIC

guero, gaitz da iohacartcen : gogoa airatuz guero; gaitz da solegatcen, eta bere leccura bihurtcen.

Igilit. Cuhurtcia handia da, emaztèquin eçagutçatan ez sartcea, nor bere leccuetan egoitea. Ceren behin elccargana abiatuz guero, gaitz da handic pitzten den suaren iraunguitcea; eta bai halaber iendearen ichilic eduquitcea. Lehenbician errax da, emaztèquin adisquidetctic, eta trebatctic beguiratcea, solhascan barrena ez sartcea, elccar gana ez ibiltcea: Baina behin abiatuz guero, adisquidetüz guero, trebatuz guero, eta elccarrequin solhascan, hitz quetan, elhequetan, present quetan, gosal quetan, eta visita quetan hafiz guero, peril handia da arimaco, eta exemplo gaixtoa munduco.

Beraz hunelatan emaztètatic beguiratu, nahi duenac, nola behar baitu bere mihia edo cein hirzen erraitetic guibelatu: hala behardu halaber, emaztequin trebatctic, ibiltctic eta hirtetan, eta eçagutçatan sobora barrena sartctic escufatu.

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco bederatci
garren erremadica, fabelari ez, sobera
emaitea.*

CAP. XXXXIII.

EMaztètaco eguitcco lunteran bere buruaz contu ona eman nahi duenac, behar du ian edanetic ere beguiratu. Behar du neurriz iatèra, edatera, eta gutuaren, eta çapporearen portalearen ahal beçanbat cerraturic eduquitcera enseiatu. *Sine Cerere et Bacco friget venus*, dio Therentcioc. Ogtiuric, eta arnotic ezten leccuan, hotz da Venus; ezta han amurufiaric, eta ez emazte guticiaric. Errana da, haraguiaren placera, amorio desordenatua, sua beçala dela; eta su haren egurrac ian edanac direla. Edequi iatçotçu beraz egurrac, ian eçaçu guti, eta edan guti ago, eta halatan, edo ezta sua pitzutuco, edo pitztua fite iranguico da.

Ordenatu çuen Solonec bere leguètan, baldin herrico cargudun bati guertha bacequion, sobera edatera, eta handic mihiaren motheltcera edo çangoen cordocacera, ederi cçequiola bere hala bere carga. Eta arra-

406 HARAGVIAREN BECCATVTC

goiñequin ordenatu çuen hala. Ceren bere burua ecin gouerna deça queyenac, nola eguinen du bertcerena? *Qui sibi nequam est, cui alii bonus erit?* Beretçat gaixio dena, nola içanen da bertcerençat on?

Aeneas
Sira. de Eutropa ca. 10.
Corinthioec bere Erreguearen icendatcean eta corroatcean, vsatcen çuten cirimonietaric bat cen, eccartcea, bere aitcinera, beira bat vr, adircera emaita gatic, etçuela handic aitcina, arnoric eoa behar, edo edanê çuena, ongui ematuric, eta vrtçuturic edan behareo çuela.

Alexan. ab Ait sar dro lib. 1. cap. 26.
Lehen ago Erromaco emaztéc etçuten bat ere arnoric edaten. Ceren bertcerençat ere itfusi da sobera edatea, baina emazténçat are itfusi ago, eta perilos ago. Handic vstedur ethorri cela vsantça, arrotz calean, campotic ethortcean, guiçonec, emaztáy pot eguitea, muslu emaita, iaquiteco ea arno vsainic baçutenz.

Arneas Silu. lib. de dictis & factis Albo si Regis. num. 7.
Federico, icen hunetaco, hirur garren Emperadoreac, etçuen bere mendean arnoric edan, anhitz baitcen Aleman batentçat. Eta nola berac ezpaitçuen edaten, begui gaitcez behatcen cerauen, arnora emanac ciren guztiey. Emperadore harc etçuen haurric içaiten, ez condua bacen ere. Eta midicuec elcargana vilduric, eta conseillu harturic, erran cioten Emperatriçari, arno appurbat edan bebar çuela, eta halatan cenbait haur içanen çuela. Emperadoreac Midicuen auifu

BEG VIRATCECO ERREMEDIAC. 407

hunen berri iaquin çuenean, defira handia ba-
 çuen ere, bere ondotic cenbait vmeren viz-
 teco, guziarequin ere, gaztigatu ceraucan,
 bere emazteari, beguira çuela, etçeçala ba-
 laco erremedioric har; etçeçala haur içaitea
 gatic arnoric edan. Ceren nahi ago çuela
 emazte haur gabea, esterila, defota, antçua,
 eta haltça oihanaren vista beçala, fruitu ga-
 bea, ecen ez hordia, eta arno edalea. Hitz
 notatcecoac ciren hauc, eta segur ongui er-
 ranac. Ceren handiac baitira, arnoac, guztiz
 ere emaztetan eguiten dituen calteac: hain
 handiac, ecen ezpaita emazte edalea baithan
 cer fidaturic, eta ez guiçon hordia baithan
 ere.

Ohoiñ bar, iocari bar, arnegari bar pura-
 nerbat, gaixto da: ordea guiçon da, bere
 adimenduan dago, cerbaitetaco gai da. Bai-
 ña hordia, ardancoia, abre da, ezta guiçon.
 Ceren guiçon içaitea da, adimenduan egoi-
 tea, arraçoñaz vsatcea. Beraz hordia, hor-
 di deino ezta guiçon. Ceren orduan ezpai-
 tago adimenduan; ezpaita orduan, abre
 baino guehi ago, arraçoñaz valiatcen. Eta
 hala guiçonac, bere guiçon rasiñean, ecin
 duque falta handi agoric, eta ez defohore de-
 fohora garriagoric (munduac hala ezpada-
 duca ere) horditcea, adimenduaren nahastea,
 eta fama hartan iartcea baino.

408 HÁRAGVIAREN BECCATVTIC

Noe Patriarca saildu hura horditu cen egun batez ; eta harena etcen miresteco , ceren lehenbico edan aldia baitquen , eta expartciaquien orafio orduan cer indar çuen. arnoac : ceren iaquinez guero beguiratu cen. Baina miresteco da , nola orai çuc daquçularic , eta esperientcia duçularic , neurri batetara helduz guero , arnoac iragaiten çairuen , gaitz eguiten deratçun , etçaren guztia-requin ere cençatcen , eta ez berriz halacatetic beguiratcen.

Licurgo Thraciaco Erregeari iduritu ceican ecen , etcela asco arnoac eguiten cituen caltèn erremediatceco , leguez , eta ordenantçaz arnoaren debeatceca , ceren hura cela erroac vtciric adarrey lotcea Baina mahastiac behar cirela ebaqui , eta picatu. Eta hala bere errefumaco guztiac , bat ere vti gabe , pica araci cituen : eta manatu çuen etcedilla nehor handi harat , biciaren pena , aufart , mahastiren landatcera. Eta bide hartçaz , Erregue harc , erremediatu cituen , arnoac , bere Errefuman , eguitan cerautçan calte guztiac.

Sabel bethea , ianhariz , eta edariz gainez eguina , ezta deusetaco ere on , iocatceco , minçatceco , erasteco , eta erhoqueria eguiteco barcen. *Nolite inebriari vno in quo est luxuria.* dio iondone Pauloc. Etçaitzela hordi , etçaitzela arnoz betha , ceren arnoa den leccuan daharaguiaren defira defordenarua.

Hunen

BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 409

Hunen aruaz erraiten du san Geronimoc.

Esus carnum et potus vini, venterisque saturus a seminarium libidinis est: Haragui iatea, arno edatea, eta sabelaren bethatcea, guticia defordenatuen haz-leccua da, eta mindegua. Ceren nola mindeguiari bir landatceco landareat fortcen, eta hazten baitira: hala ian-edanean ere, haraguiaren plazer hartceco guticiac, orhoitza penac, eta quificadurac pitzten, eta eguiten dira. Gaizda, alfer, aife, eta aife egoitea, eta haraguiaren beccatutic escatcea.

Mier. lib. 2.
in Ioan.

§. 1.

Comunzqui iende aberatsac, ian-edanean ieri dabiltecanac, crotcen ago dira haraguiaren beccatuan, probegossez direnac baino. Hala frogatu çuen Sefostris Egiptoco Erregueac. Erregue hura eritu cen, eta itsutu eritalun hartaric. Eta bere hala Erresumaco sacerdote, midicu, eta gaisieraco hartaco ciren guztieç consulta eguiniç, erran cioren: bere senharraz bertcerequin eguitecoric içañ erçuen emazte baten guernuaz, eta vrisuriaz garbitu behar cituela bere beguiac, eta halatan bere hala arguituco, eta sendatuco ceitçala. Erreguec haur aditu çuenean, sendatutçat ceducan bere burua: ceren vste çuen ecen mundu guztia prestu cela. Eta

Herodo:
lib. 2.

410 HARAGVIAREN BECCATVIC

hafi cen bere hala ordenatu ceican erremedioz vsaccen. Eta lehenbicoric, segur baino segur ago, hartu çuen Erreguinaren vr-ifuria, bere emaztearena, eta haricaz midicuec ordenatu cioten beçala, busti cituen beguiac, eta gantçutu. Baina alferric, lehen beçain it-su guelditu cen, çeren Erreguinac bere senharraz bertceric ere dastatu baitçuen.

Erreguec choil miretsi çuen hunetçaz, çeren etçuen vste ecen Erreguinac halaco iocoric iocatu çuqueyela. Erreguinaz etficu çuenean, hafi cen berriz bertce emazte principal, eta aberats batçuetaric foroguaeren eguiten, vr-ifuri eccartcen, eta senda ahal citequeyenz enseiatcen. Baina etciosen hec ere senti aracitcen, eta ez onic eguiten. Çeren guztiac ciren berdin prestu, guztiac ciren bertcerequin cufatuac. Orduan Erreguec hurran, hurran etsitua cebillala eguin çuen inçontru baratce-çain probe baten emaztearequin, eta haren vr-ifuriaz beguiac vçuitu cituen beçain site, arguitu cen, eta sendatu. cenean hartu çuen emazte probe hura, eguin çuen bere emazte: eguin çuen Egiptoco Erreguina: eta guero bertce guztiac, gaixto frogatu cituenac, Erreguina bera barrençan cela, biciric, erra araci cituen.

Aberatsac aurçuitu-cituen, probeac baino gaixto ago, eta haraguiarç beccatuan eroriac ago. Aberatstafunetic, ian edanetic, gularic,

BEGUIRATCECO ERREMEDIOAC. 411

fabeldarraio tafunetic, forcen da haraguiaren plazer nahia, eta beccatua. Eta abstinentziatic, neurritz bicitetic, fabel-ederretaco içaitetic, eta pairatetic helduda debocinoz, eta sainduta fūna. Erraiten du Climaco sainduac. Nahi dena içan casto, eta ala baiña arnoan çopatua egon, eta aslean ibili, halacoa dela, suari itaunguitceco olio, eta orari bere ganic hastantceco, ogui puscaren emaitza beçala. Ceren nola ora bazcarequin hurbiltzen ago baita, eta bai sua ere olioarequin piztzen ago: hala haraguiaren guticiamendua ere, ian-èdan harequin berretcen ago, eta handitcen ago da.

Clima. cap.
14.

Beraz emaztèratic beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber, golas, içaitetic, arnoan sobera sartetic. Ceren halatan beguiratuco du bi garren censua, eta portalea, cein baita ahoa, mihia, gultua, çapporea, ceinetaric sartcen baita, haraguiaren beccatu hatza, higuina, eta bat bederaten galgarria.

412 HARAGUIAREN BECCATVTIC

*Haraguiaren beccatutic beguiratceco, lehenen
gaiñeraco erremedioac.*

CAP. XXXXIV.



Ola haraguiaren beccatuan erori nahi eztuenac eduqui behar baitu contu, lehenbico bi censuez vistaz eta gustuaz, beguiez, eta ahoaz: hala eduqui behardu contu, gaiñeraco bertce censu guztiez ere. Eduqui behar du contu ençuteaz, beharriez. Ceren anhitz gauça ençutenda, hobe baillaçateque, ez ençutea. Nehor emaztèz, edo emaztètaco gauçaz mintço denean, ez ernaturic egon, herts beharriac, itçul burua bertce alderat: ahalic eta gutiena halaco solhasic ençun, ez hetan atseguinic har. Ceren san Isidoroc dioen beçala. *Facile agitur, quod libenter auditur.* Erraxqui, eguitenda, gogotic ençuten dena.

Auditus.

Isidor. lib.
Soliloq.

Bada castitatea beguiratu nahi duenac, ez-tu dantçatu ere behar, eta ez soinuac diren leccura ioan. Lehen ago lentilen artean, eta demboran, desohore cen dauçatcea; eta ha-

BEGVIRATCECO BARRMEDIAC. 413

Ia eccen iende ohorezcoric, eta contuzcoric dantçetan edireiten. Ciceronen erranada. *Nemo fere sobrius saltat.* Nehor guri dantçatcenda edana eztenean, adimenduan dagocnean.

Cicer. pro
Musena.

Iende gazte arinen, cençuz baiño, çangoz sida go direnen, officioa da dantça. Dantçan ezta, occasino gaxtoric daicen. Han ahalquea galtcenda; eçagurçatan sartcenda; solhastatcenda trebarcenda, escuztatcenda, mandatuua eguitenda, eta azquenean behar eztena sortcenda.

Erran behar da, gauça gaxtoa, eta occasino sua dela dantça, hartçaz dioenean san Agustinec. *Melius est in diebus Dominicis arare, vel fodere quam choreas ducere.* Hobe da, eta beccatuguti aga da, igande egunetan, golde nabarretan, eta lur lanetan travaillatcea, eccen ez dantçan haritcea. eta haur erraitendu hunela, ez ceren dantçatcea bera hain gauça gaxtoa den, baita ceren dantçatic anhitz occasino behar eztenic sortcen den.

August. de
decc chor-
dis.

§. I.

BAda beguiratu behar da vsnaren portalea, ere, eduqui behar da contu sudurrez ere. Ceren sarditeque handie ere behar ezte-

Odoratus.

414 HARAGVIAREN BECCATYTIC

na. Ezta musquetaz, balsamoz, eta halaco bertze vsain onez vsainzturic ibili behar. Ceren hala ibiltceac ezta vsain ona. Eta halatan manatu çuen Solonec, erceçala nehore vsain mercaralgoatan trata. Zenon Philosophoac etçuen iccussi ere nahi halaco vsainic çuenic. Era hala egun batez bere compainiaco bari vsaifra adituric, eta bere baithan hasferreturic, galdeguin çuen. *Quis hic mulierem olet? Nore du hemen emazte vrrina?* Bide gabe handia eguiten derauca bere buruari, emaztexqui bat beçala, vrrintztaturic, eta vsain onez betheric dabillan guionar.

Diog laert.
lib. 7. in vi-
ta Zeno.

Ceren halacoac vsain ona emaitteagatic, emaiten baitio bere buruari fama gairtoa. Badira gauça batçuc iccussi gabe, sudurraz beraz, vrrinaz vsnatcen, eta iaquiten bastira, non diren, eta cer diren: Hala bethi vsain onez betheric dabilçanac ere, vsnatcen dira, eta iccussi gabe iccusten, nolacoac, cer azturatacoac, eta certsu diren. Halatan Marcial Poetac erran ceraucan egun batez Postumo bere adisquideari. *Hoc mihi suspectum est, quod olet bene Postume semper. Postume non bene olet, qui semper bene olet.* Gogan behar gairtoa emaiten detaut Postumo çure bethi vsain onez betheric ibiltceac. Ceren ezta vsain ona, bethi vsain onõ duenac. Vsainic hoberena, bat-ere vsainic ez içaitca da. Hala

Martial. li
2. Epigt. 12.

, BEGVIRACTCECO ERREMEDIOAC. 415

erraitendu Ciceronec emaztèz mintço dela. *Cicero ad*
Ideo bene olent, quia nihil olent. Vſainic ez tute- *sericum*
 nean dute vlain ona, eta ceren ez baitute vſain *lib. 2.*
 nic, hargatic dute vſain ona. Balamo, am-
 bar, muſqueta, eta halaco bertce vſain onac,
 iendén enganarceco, bere gana eracartceco,
 bere buruez mintça aracitceco, eta haraguia-
 ren beccatuan eroriac dauntçala, vſnarceco,
 eta gogan behartceco, bideac, eta ſeñaleac
 dira. Edo bai ceren venturaz cenbait vſain
 gaitxo, eta khirats baitute bere gorputzean,
 haren eſtaltceco, eta ezeztatceco hartuac, eta
 penſatpac.

§. 2.

Eztu deus valio vſain onez betheric ibilt-
 ceac, eta are guti ago, berari dagocan bai-
 ño ſoineco arropa eder agoac erabilteac.
 Ceren hec guztiaç dira vanaloriaç, deſorde-
 nuac, eta deſonhets queriaren ſeñaleac.

Amictus corporis, & riſus dentium & inceſſus *Eceleſ. 9.*
hominis enuntiam de illo. Soiñeco arrope-
 tan, irrian, eta ibiltcean da eçagun, nolacoa,
 eta certaco den bat bedera. Nola khea den
 leccuan, agueri baita badela ſua; hala fo-
 ſeguric gabe, hortzac hirturic, bethi irriz
 egoitcan, eta vanoqui veztituric ibiltcean, da

416 HARAGVIAREN BECCATVTIC

.Thom. 6.

halaber eçagun , eta agueri , han dela erguel-
 queria franco , eta adimendua efcáz. *Ha-*
bentes alimenta , & quibus tegamur , his con-
tents sumus. Dio iondone Pauloc , dugun-
 neari certçaz goflea hil , eta larrua efcál , afeo
 eften dagu. Eztugu ian edanean , eta vezti-
 mendetan foberaniaric galdeguiten : doi-
 az elicatcen , iragaiten , eta contentatcen
 gara. Cenbait granoz arin delaco feinalea
 da , bertceac ez beçala , edo dagocan baiño e-
 derqui ago veztituric ibiltcea : eta vezti dura
 hec foinean dituenean , bere buruari conten-
 tez beha egoitza. Halaco bati errañ cioë egun
 batez fequeretuan beharrira Demonaçte ce-
 ritçan philopha batec. *Hæus tu , hoc ante te ,*
quis ferebat. Hola adifquidea , orai çuc foif-
 ñean darabiltçatçun arropa horiec , çuc
 baiño lehen , erabili cituen bere bizcar-
 rean ardiac , ceren haren illeaz eguinac
 baitira. Eztuçu beraz horietçaz cer lo-
 riaturic. Eta Bertcela ere , ceren vezti du-
 rac , beccatuaren efcalgairiac beçala , eta
 beccatu eguin dugulaco feinaleac baitira
 Ederqui erraiten du fan Thomafec pontu
 hunengañean. *Qui gloriatur de veste , similis est*
furi glorians de caetero , quia propter peccatum
Adæ , vfus veftium introductus eft.

Lucanus in
 vita demo-
 na.

S. Thom.
 de regimi-
 ne princip.
 lib. 5. cap.
 59.

Nahi duçu iaguin , bere foifñeco arropiez ,
 preçatcen , eta loriatcen dena , nola deni Aço-
 tatu ondoá , iufticiac forbaldá , burdin goriaz ,

BEGVIRATCECO ERREMEDIAC. 417

emaiten dioen marcaz eta ciguilluaz, preçat-
 cen den ohoiña beçala. Marca hura, bete gaix-
 taqueric gatic emaiten çaiça ohoiñari, eta bai
 guri ere veztimenda, gure eta Adan gure le-
 henbicio aicaren beccatua gatic. Beccaturic
 içan ezpaliz, etcen beharco veztimandariç;
 eztugu beçaz hetçaz cer vanaloriaturic.

Bat bederac behardu, bere estatuaren ara-
 uaz, nola baitagoca, hala veztutu, eta ez guehi
 ago. Ceren guehi agosoaz, desfõharaicen
 ago du bere burua oho ratcen baiño. Erregue
 vezti bedi oihalic hoberenaz: aiton e semea era
 dicoaz, eta neccaçalea arronteraz. Ceren
 gaireraco guztiaç dira vanaloriac, deforde-
 nuac, beccatu eguiteco eta eraguiteco bideac
 eta castitatearen gal garrnac.

§. 3.

BAiña guztien gaireric borz garren censu
 corporalari, cein baita. *Tactus*, vquitcea *Tactus*.
 escuztattea eta hazcattea, eduqui behar çaiça
 beguia. Ceren hura da ohoiñen capitaiñaz
 ijtoen Condea, bertcoren ebafician ete parte
 duena. Iccusteez, minçatçaz, ençuteaz eta
 vsnatceaz eguiten da beccatu, ez ordeaz vquit-
 ceaz beçala. Bertee censuec vrruitic, baiña
 vquitceac hurbilletic acometatendu. Be-
 guieç, mihiac eta bertee censuec eraiquitcen
 dute ihicia, baiña vquitceac atcemaiten du.

418 HARAGVIAREN BECCATVTCIO

Gaixto eneco pontuan, defonhesqui behatu agatic, eta mintzatu agatic ere, aitzinago iragaiten ezpada, ezta obraric bedere: baina vquituz guero, accabatuda iocoa, eguinda colpea. Defonhesqui behatcea, eritceco seinalea da baina vquitcea hiltcecoa. Oraino solhastatceaz, eta behatceaz beraz ere, quilicatcenda, orhoitcenda. Cericanenda bada, vquitcera, eta mussu bellarquetara dadinean? Vrruitic ere berotcen du suac, cer eguinen da bada hurbil dadinean? Gaizqui doha iztupaz, suac utqui deçanean. Berice ioco guztia ametsetacoac beçala dira, vtquitcea da, iratçarricacoa, fina eta segura. Garzac vrez eguina delaric, ezta vira baino etsai handiagoric: ez eta haraguiac ere haraguiç delaric, haraguiç baino gal-garri agoric. Batac eta bericeac ere alco dute elccarren vquitcea. Beraz aparta, ez hurbil, ez vtqui. Ceren nola vquitceac pizten baitu sua, hala ez vquitceac, hastantceac eta aldaraturic egoiteac beguiratcen du castitate eta garbitasuna.

Finan erremedio guztien gaineco, behar ligatequeyen erremedioa da, considerateca, laincoac iccusten gaituela, beha dagocula. Eta baldio den presunaric eztheusentzen behatceac, iccusteçac eta aitzinean g'eretha ceac, guibelatcen bagaitu, halaco beccatuzen eguiteric; nola icçanenda arraçoim guibela

AREN ALHADYRAZ 419

gaitçan, gueldi gaitçan, eta beguira gaitçan, laincoac iccuffen gaituela, eta aldacan beha dagocula iaquiteac eta penfatceac.

Hauc dira (eta laincoac ailliofca liren afco) haraguiaren beccatuan ez erortceco eta eroriz guero ere, iaquitceco, hartu hebar diren erremedioric principalenac. Cein baldin egun beretic, gueroco luçatu gabe, hartcen eta confideratcen baditutçu, iaquiçu ecen gorputçari aiffa handi bat emanen dioçula; eta arimari, are handi agoa. Eta halatan munduan duçun etfairic handiena eta perilos ena cein baita haragulia, azpiraco, garaituco eta errendatua ibenico duçula.

Nola guerotie guerora gabiltçan bitartean, alho çaicun concientcia gaittoa.

CAP. XLV.



Rraitendu fan Thomafec, eta frogatcen den gauça da, gure laungoicoac ereiña eta landatua daducala gure baithan barren, iaquin behar diren gauen cen iaquiteco, eta eguin behar direnen eguiteco hafia eta landarea. Badu gutaric bat bederac, bere baithan barrena, lain-

S. Thom. t.
part. 4. 79.
art. 2.

420 CONCIENCIA GAIXTO

coac emanicaco aincindari bat, quidari bat eta argui-eguille bat. Eta hanc eracusten deracucet dagocun ongui eta cer gaizqui: noiz goacin maccur eta noiz artez. Eta are guehi ago, hanc berac bere ahal guztiaz, aincinatcen, eta bulcatcen gaitu ongui eguitera, eta guibelatcen, eta hastantece gaizqui eguiteric.

Barreneco aincindari haur. edo argui-eguille haur, cein deicen baitute Doctorec. *Synderesis*, da gure concienscia, edo arraçoïn naturala. Ceren ezta munduan halaco aincindaric, guidariric, argui-eguilleric eta ez eracusteric, nola baita arraçoïn naturala, eta arraçoïn naturalac dioena; naturaren arauaz, leguez eta ethoiquiz daquiguna: bat hederaren barrenca, concienscia: eta concientciaren lehenbico muguida, abiadura, eracuspina eta conteillua. Hala erraitendu san Crisostomoc. *Ab initio Deus hominem formans, legem illi naturalem indidit. Et quid tandem est lex naturalis? Conscientiam nobis expressit, & per se discibilem constituit bonorum & contrariorum scientiam. Non enim opus habemus discere quod mala est fornicatio, sed ab initio hoc scimus.* Hastetic, eguin çuetic beretic, eman ceraucan. Iaincoac guçonari legue naturala. Eta cer da legue naturala? Bat hederaren concienscia, ceinetan barrenca baitago, bere buruzco eçagutça bat, iaquiteco, cein den çucen eta cein maccur: cein den ongui eta cein gaizqui: halaco moldez ecen

Chryso-
stom. 12. ad
popul. An-
thio 10. 5.

AREN ALHADYRAZ.

421

azpaita cer ibiliric frogatcen , gauça gaixtoa dela beccatus eta gauça ona verthutea , ceren badaquigu haur guetoc ere gueure burutic , legue naturalac berac , concientciac eracutiric.

§. I.

HVnetan da agueri maite gaituela gueure Iaungoicoac. Ceren gueure baithan barena, gueure etchean , bertcetara conseillaterra ioaiteco premia gabe , emaiten baiteracu behar dugun nabusia eta eracuslea , cein baita concientcia. Eta halatan condenatcen dira, legue naturalaren arauaz bicitcen ez tiren Ientilac.

Mercatari batquec eguiten dituzte sal-erofi nahasiac, tratu gaixtoac , lucureriazcoac , enganamenduz bertheac. Eta guero ioaiten dira bere coffes forerara edo bertcetara , gaideguitera , ea tratu hec iustu direnz , eguin ahal dittezqueyenz. Eta ioaiten dira mengoa gabe, premia gutirequin. Ceren hain da clar ez tirela iustu non baldin bertcetari ibili gabe, galdegin baliagote beréc bore concientciari, harc berac eracutz baillitçaye eguia. Eta handic, beréc condena baillitçaquete bere buruac. Ceren bere concientcian barena ediren baillitçaquete, esquiribaturic beçala , galdetz dauden guztiazen errepuesta. Vtci nahi

422 CONCIENCIA GAIXTO

Sagen

S Thom I.
part 9. 79
art. 13

badigu concientiari, berá da asco, errebelat-
cetic beguiratceco, artez eta chuchen erabil-
ceco. Ceren badaqui behar denz, eta bere
eguitez guztia da onera emana. Eta San
Thomasec dioen beçala, ontasunari eguiren
dio besta eta beguitarte, eta gaixtatafunari lis-
car eta veltçuti. *Synderesis dicitur instigare ad
bonum, & mormurare de malo.* Beraz bere con-
cipientiaren arauaz haren buruz eta conseilluz
gouernatcen eta quidatcen dena ongui da,
aleguera da, content eta paguda. Baina bert-
cela, bere concipientiaren contra dabil-
lana, gaizqui da, beltz, ilhun, goibel eta tris-
te da.

c. Eta arraçoinequin da hala. Ceren nola, çan-
goa, besoa, edo gorpurzeco bertce parte bat,
bere toquitic eta iunturatic ilquitcen, mac-
curtcen, aldaratcen edo enhardatcen denean,
ecin sofega baititeque eta ez pausa, bere to-
quira eta leccura bihur arteino: hala bere con-
cipientiari guibela emanic, beccatutan dagoe-
na ere, nola behar den iunturatic eta arraçoin
naturalac erracusten dioen bidetic eta orde-
nantçatic aldaratua eta iltquia baitago, ecin
sofega diteque, eta ez pausa, hala dagoeino.
Bere bidean eta toquian dagoenean, nola bai-
tago bereturic ez tuenean, orduan da alegue-
ra airat, aise, content eta bere gogara.